

# Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

## EKOLOGIA

### Asmo onak bai, baina...

**LEGEZ KONTRAKO EHIZARI** aurre egiteko hainbat neurri hartu izan dituzte Afrikan; elefante ehiza gelditzeko adibidez boli komertzioa debekatu zuten. Neurri hori 90eko hamarkadan hartu zuten, pasa dira urte batzuk ordutik eta atzera begiraturaz gero zer esan dezakegu? Hegoafrikan 1994. urtean sartu zen indarrean boli komertzioa debekatzeko araudia eta hamar urtean Kruger Parkeko elefante populazioa bikoiztu egin da. Superpopulazio horrek beste arazo batzuk eragin ditu ordea. Nola konpondu afera? Antisorgailuak konplexuak dira, beste leku batera eramatea garestia da, ehiza selektiboa izan daiteke onena agian: elefante kopurua mugatzeaz gain ehiztariak diru-sarrerara ederrak ekarriko lituzkeelako bertakoentzat.



Ez, ez da Hemingway, baina honek ere fusila hartu eta sabanan animalia basatiak tiroz jota eraistea maite du.

## O s a s u n a

JABIER AGIRRE

### Uda partean ondo elikatu zure seme-alabak

**PASA BERRI DEN UDAN** gehienok nahi baino gutxiago agertu den arren, eguzkiak —eta tenperatura altuek— gogor erasaten digute guztioi. Eraginik handiena haurrengan nabaritzen da ordea, deshidratazioa eta “bero-kolpea” esaten zaiona jasateraino. Ondorio kaltegarriak aurre hartzeko aski da fruta eta berdura ausarki sartzea gure dietan eta ordurik beroenetan eguzki-izpietatik babestea.

Haurrentzat onena talde nutritibo guztietako elikagaiak biltzen dituen dieta da, aldi berean arina eta freskagarria gertatuko zaiona. Gorputzak ez ditu neguan adina kaloria behar tenperaturari eusteko, eta horrexegatik eduki kaloriko baxuagoko osagaiak hautatu daitezke: frutak eta barazkiak batez ere. Egitekoa osagai horiek modu erakargarrian aurkeztea da, ume-jendeak gustura jan ditzan.

Gazpatxoak eta barazki-krema hotzek —tomatearenak, esaterako— karbohidratoak, bitaminak, mineralak eta likidoak ematen dizkigute. Entsaladak —arroz, pasta eta lekaleekin eginak— plater konpletoago bihurtuko dituzu arrautza edo oilaskoa bezalako proteinak eransiten badizkiezu. Paellak ere oso gomendagarriak dira plater bakar bezala arrozari —energia-iturri diren karbohidratoei— arraina, haragia, eta berdurak erantsi dakizkiokelako.

Egunik beroenetan gorputzak bizpahiru litro likido gal ditzake. Deshidratazioa saihesteko edan egin behar da: ura, zukuak, esnea eta irabiatuak. Berdura eta frutatari aberatsa den elikadurak ere laguntzen du horretan. Freskagarriak —kaloria hutsak— eta azukredun zukuak —energetikoegiak— ez dira onak.

Ordutegi jakina ezartzea ere oso garrantzitsua da. Umeek lau otordu egin behar lituzkete egunean jakineko tenoretan. Gosari egokia ezinbestekoa da —esnekia, zerealak edo ogi xigortua, fruta edo zuku bat—. Merienda ez da ahaztu behar, eta opil industrialak edo litxarriak baino hobe dute ogi-tartekoa eta zukuak. Izozkiren bat ere ez da txarra tartean-tartean, ume gehienek ikaragarri maite dituzte eta kaltzio iturri garrantzitsua dira.



## landareak

Baina elefanteena ez da izan Afrikan gertatu den ustekabeko bakarra, beste espezie askoren babeserako asmo onek animaliak neurririk gabe ugaltzea ekarri baitu. Eta horrek mundu guztiko aberats jendeei euren etxeko beheko suaren gainean animalien buru lehortuak zintzilikatzeko aukera berriak eskaini dizkie; beraz, ehizatzea ekonomiaren pizgarri eta animalien populazioa ziurtatzeko sistema ederra izan liteke.

Antzeko gertaerak ez dira beti kontzientzia ekologikoa indartu den neurrian gertatu. Ozeano Atlantikoko erdialdean dagoen Montaña Verde de Ascension irlan ez zegoen zuhaitzik Darwinen garaian, zientzialariak idatzita utzi zuenez. XIX. mendean Erresuma Batuko gobernua hainbat lekutatik eramandako zuhaitzak landatzea erabaki zuen, bi, hiru, lau edo bost mendetan baso ederrak lortzeko esperantzaz. Gaur baso tropikal trinkoak hartzen du irlaren azalera osoa. Ez ordea landatutako zuhaitzekin, beste batzuekin baizik. Antza, landatutako zuhaitzek babesa eskaini zieten beste landare tropikal batzuei eta azken hauek ugaltu dira izugarri besteak ahitzen joan diren heinean.



Ascension irla, Atlantikoaren erdi-erdian.

Adibide gisa aipatutako gertaera hauek kontzeptu ekologikoak zalantzan jarri eta iritziak birplantatzera bultzatu ditu hainbat ikerlari. Beste era batera esanda umiltasuna berreskuratu eta naturari behatzea apaltasunez erabakitzen dutenak gero eta gehiago dira, naturak etnik gabe eskaintzen baitizkigu ustekabekoak.

Bukatzeko, aipatu dezagun DDT intsektizida ospetsuaren joan-etorriko historia. Joan den mendean erabat debekatu zen antiekologikoa zelakoan eta 2006ko irailean Munduko Osasun-Erakundeak, besteak beste urtero milioika pertsonaren heriotzaren erantzule diren malaria edo dengea transmititzen dituzten eltxoak akabatzeke dagoen biderik eraginkorrenetako gisa hartu zuen. ■

Adibide gisa aipatutako gertaera hauek kontzeptu ekologikoak zalantzan jarri eta iritziak birplantatzera bultzatu ditu hainbat ikerlari. Beste era batera esanda umiltasuna berreskuratu eta naturari behatzea apaltasunez erabakitzen dutenak gero eta gehiago dira, naturak etnik gabe eskaintzen baitizkigu ustekabekoak.

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

## Lisko eta lipitx

SUSANA BATEN ha-zuzenaren gara puskak emanda komeria liskartsua eta lipitxaria denik ezin uka. Polita kalapita, haatik.

Liskoa eta lipitxa, gara berari deitzeko beste bi izen dira. Urte betean jaito, hazi, erreserbak osatu, heldutasun sexualera iritsi eta bere burua bukatze bidean somatzean loreak zabaldu eta emalduz gero fruituak eta haziak ontzeko duen grina bideratzeko ematen du gara, liskoa edo lipitxa landareak. Noiz edo noiz, non edo non, sekula santan bat etortzez gero lan ederrak jarri dituzten bideak hartuarazi genien hitz hauei, inondik ere, bide-gurutzeren batean. Artoaren lipitx bizkaitarrak eta beterriko arbi gipuztarenak tirabira, hika-mika eta disputa lipitxariak ez al dakarkigu lera-bidean gora? eta azaren lisko lapurtarrarena eztabaida, errieta eta istilu liskartsuen sasiak hartzen ari den bide-zidorra ez al da? Gararen garatu, aldiz, beste bide batetik daramagu, autobidean barrena, aise, gozo... Ahobetez ahobete, lerre haritxoaren gisan, dabil garapen hitza; etorkizun garararako, iharrerako bidean.

Goi gain garan, garerdi-garerdian izanagatik gara erdiko gizakiak gara. Geurean gara ez baita garaiera edo kaskezurra zein altueran duguna soilik baita talentuaren emana ere. Milaka urtetan garapak utzi eta garangorriak, garagarrak... bezalako garauak eta garaunak, fruituak eta aleak bildu izan ditugu eta garai garaietan jaso goseteak, lapurrak eta edonolako aurkariak garaitzeko; baita garaite hauek ospatu ere. Garai gara hauetan, ordea, garaikarka dibalen idi parea dirudigu! Garondo galanta baina zulatua, garondozulua. Garapenean garunik bat ere ez!



DANI BLANCO

Goi gain garan, garerdi-garerdian izanagatik gara erdiko gizakiak gara.

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erremintak Soluzioak Zerbitzuak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)  
Industria 1, 20160 Lesaito-Olea  
Tel. 943.37.18.48  
e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA